

# 1- ENTZUN AURRETIK

## 1.1 Bagoaz parrandara!

✂ Egin gelako lagun guztiei inkesta hau:

Parrandazalea zara?                      Bai                         Ez  

| Noiz egiten duzu parranda? | Nolakoa da txikia ala handia? |                          |
|----------------------------|-------------------------------|--------------------------|
|                            | Parranda txikia               | Parranda handia          |
| Ostiralean                 | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |
| Asteburuan                 | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |
| Herriko jaietan            | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |
| Urte zahar gauean          | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |
| Batzuetan                  | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |
| Inoiz ez                   | <input type="checkbox"/>      | <input type="checkbox"/> |

Erantzunak jaso eta osatu zerrenda.

### Gelako parrandazaleak

.....

.....

.....

.....



# 2- ENTZUN BITARTEAN

## 2.1 Parrandarako prest?

🎧 ✂ Adierazi hurrengo esaldiak EGIA ala GEZURRA diren.

|  | EGIA | GEZURRA |
|--|------|---------|
| Amaia badoa etxetik: horregatik da parranda.   |      |         |
| Josuri ondo iruditzen zaio parrandarako eguna. |      |         |
| Taberna batean jarri dute hitzordua            |      |         |
| Ordu berean joango dira guztiak tabernara.     |      |         |
| Josuk beti egin nahi du parranda.              |      |         |
| Proposamena entzun eta gero Alex logelara doa. |      |         |

👤 🗣 Adostu erantzunak. Transkripzioa behar baduzue, eskatu irakasleari.

2.2 Parranda: noiz hasi badakigu, baina noiz bukatu ez  
Jarri arreta hizkuntzan



**Norbaitekin hitzordua adosten:**

- Noiz geratuko gara tabernan?
- ZazpiETAN ondo?
- Bai, noski! / Bale / Ederki! / Oso ondo / Ados/ Konforme/

**Edo honela:**

- Bost eta erdiETAN geratuko tabernan?
- Nik ezin dut bost eta erdietan . Eta sei eta erdiETAN?
- Oso ondo / Bale / Ederki / Oso ondo

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Geratuko gara?

Irakurri testu hau eta bete taula:

ALEX.— Aizue, ideia bat izan dut: afari bat egingo dugu, Amaiaren omenez? Orain gutxi etorri da-eta gurekin bizitzera. Afaria eta parranda!

JOSU.— Bai! Ideia ona izan duzu, Alex.

AMAIA.— Mila esker, baina ez da beharrezkoa.

JOSU.— Bai, parranda ederra izango da.

ALEX.— Eta noiz egingo dugu? Ostiralean?

JOSU.— Ederki, ni libre nago. Zortzietan, Arkupe tabernan?

AMAIA.— Nik zortzi eta erdiak arte ezin dut, padel-partida bat jokatu behar dut. Bederatzietan?

JOSU.— Bueno, gu zortzi eta erdietan geratuko gara, eta zu, ba etorri bederatzietan.

ALEX.— Eta Oier eta June?

JOSU.— Nire kontu, haiek ere gustura etorriko dira.

AMAIA.— Oso ondo, bost pisukideak batera parrandan.

| Nor joango da afarira? | Non geratu dira? | Ze ordutan geratu dira? |
|------------------------|------------------|-------------------------|
|                        |                  |                         |

### 3.2 Zer ordutan joango gara tabernara

✂ ✎ Euskaltegi ondoko tabernan zerbait hartu nahi duzue. Adostu hitzordua. Adostu ondoren, jaso hitzordua taulan eta erantzun azken galderari.

Lehenik eguna eta gero ordua.

- Geratuko gara ostiralean?
- Ezin dut. Ostiraletan nire koadrilarekin geratzen naiz.
- Ederki! Beste egun bat aukeratuko dugu. Osteguna?
- Klasea bukatu eta gero geratuko gara?
- Bai. Oso ondo. Horrela hobeto.
- Bai, bestela berandu izango da.

| Nor joango da? | Non geratu gara? | Ze ordutan geratu gara? |
|----------------|------------------|-------------------------|
|                |                  |                         |

Gelako parrandazaleak badatoz?

